

EDER TXIKIA

Testua eta irudiak: **ANTHONY BROWNE**

Itzulpena: **MANU LÓPEZ GASENI**

Azal gogorrean kuadematur. 26 x 30 cm. 32 pág. 16,50 €

[Eder txikia](#) (euskara)

ISBN 978-84-18558-95-5. Album irudidunak. Gaur egungo klasikoak.

[Cosita Linda](#) (castellano)

ISBN 978-84-1343-309-7. Álbum ilustrado. Clásicos contemporáneos.

[Cousiña Linda](#) (galego)

ISBN 978-84-1343-308-0. Álbum ilustrado. Tras os montes.

[La petita bellesa](#) (català)

ISBN 978-84-18558-95-5. Àlbum il·lustrat Clàssics contemporanis.

[Pequena flor](#) (português)

ISBN 978-989-749-184-9. Álbum ilustrado. Clásicos contemporáneos.

Bazen behin gorila oso berezi bat, zeinu-hizkuntzaz baliatzen ikasi zuena. Zerbait nahi bazuen, gai zen bere zaintzaileei eskatzeko, eskuez egindako zeinuak erabiliz. Bere behar guztiak aserik zituela zirudien. Hala ere, triste zegoen...

«Eder Txikia» Anthony Browneren bibliografia zabaleko funtsezko tituluetakoa bat da; benetako adiskidetasunari eta elkartasunari egindako kantua da, darion umoreagatik, samurtasunagatik eta protagonista maitagarrien itxuraren eta portaeraren arteko kontrasteagatik nabarmentzen dena: gorila sendo bat –autore honen obran oso presente dagoen figura bat- eta katakume delikatu bat dira protagonistak.

Anthony Brownek Koko eta All Ball izeneko animalia benetakoetan bilatu zuen inspirazioa: Stanfordeko Unibertsitateko zientzialariek zeinu-hizkuntzan komunikatzeko trebatutako gorila bat zen Koko, eta All Ball, aldiz, gorilak ume baten moduan zaintzen zuen katu bat. Zoritxarrez, egun batean katua desagertu, eta horrek pena handia eragin zion gorilari. 1974an egindako esperimentu horretatik abiatuta, haur literaturako klasiko hau sortu zen. Hainbat irakurketa-mailatatik, hainbat gogoeta lantzen ditu: animalia basatien kartzela-bizitza, eta animalia basatien tamainarekin lotutako estereotipo bat, pentsarazten diguna animalia handia baldin bada agresiboa ere badela eta ez duela emozioak adierazteko gaitasunik.


Erosotasun asko izanik ere, bakarrik zegoen eta bakardadeak tristura sortzen zion gorilari. Baina katutxoaren etorrerak erakutsiko digu gure gorila, bere handian, maitekorra, sentibera eta eskuzabala dela, eta gai dela bakarrik gizakienak direla diruditen sentimendu batzuk adierazteko: nahigabea eta haserrea, konparaziora. Hor sortzen da kontakizunaren ustekabeko amaiera, ohiko moldeak hausten dituen.

Anthony Browneren beste liburu batzuetan bezala, irudiak xehetasun harrigarri, ironiko eta fantastikoz beterik daude, testuaren laburtasuna konpentsatzen dutenak: gorila inguratzen duen ingurune humanizatua, XX. mendeko erreferentzia artistikoak eta ikus-entzunezko kulturaren osagaiak, gorilaren ohiko habitateko landaredia ordezkatzeko duen lore-motiboekin margotutako paperak... Nabarmentzekoak dira, bestalde, bozeto gisarako adierazgarritasun handiko eszenak, baita kolorearen erabilera sinbolikoa ere.

www. **Kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com
ctxca
soltxate@pamiela.com



■ **Gaiak:** adizkitasuna eta enpatia

■ **Gomendatutako adina:** 3 urteik aurrera.

■ **Alderdi azpimagarriak:** Aniztasuna. Zeinu hizkuntza, komunikazioa. Animalien ipuinak, gorialak, animalia basatiak. Egilearen beste liburu batzuk: «Urdaburutarrak», «Ernesto elefantea» y «Nola sentitzen zara?», «Keskamuxelak», «Gorila bat. Zenbatzeko liburua», «Basoan barrena», «Osteratxo bat parkean».

■ **Liburuaren aurrerapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/eder-txikia-eusk>

Anthony Browne

(Sheffield, Ingalterra, 1946)

Leeds College of Art delakoan graduaturik, diseinu grafikoa espezializatu zen. Medikuntzako gaiak marrazten hasi zen Manchesterreko ospitale batean, eta gero haurrentzako ilustrazioak sortzera bideratu zuen bere zeregina. Bere ibilbidean jaso dituen sari aipagarrienak dira Kate Greenaway domina, Kurt Maschler saria, Children's Laureate 2009 domina eta Hans Christian Andersen saria, 2000. urtean bere obra osoari emandakoa. Itzal handieneko egile ingelesetarikoa bat da, batez ere irakurtzeko, begiratzeko eta lengoia plastikarekin erlazionatzeko bide berriak zabaltzeko ahaleginagatik. Haren lanak kultur eta arte erreferentziaz betetako unibertsoa sortu du, edozein adinetako irakurleak testua osatzeko eta interpretatzeko duen adimena probatzen duten ikus-arrazto eta giltzarri ugari erabiltzen baitu.

<http://www.anthonybrownebooks.com>

